

## Chopin (1810-1849)

Aita ONAINDIA

Pianu-jotzaille trebe zanez, musika-lan asko idatzi eban. Bigarren Mozartentua, oso argiazalako ume-umetarik. Zugatz-landara frutuz betea, aiabur iañ-eder utxi euskun bere bizi-epa laburrean onduta.

Varsovia ondoan jaio zan. Bere aitak, frantsesa zan arren, Polonia'n inarduan irakasle, eta bere ama polakarrak eziketa zabal fiña emon eutsoen. Mutiko zala asi zan musikalanak idazten barruak eskatzen eutson deiari erantzunik. Zortzi urtedun, jente aurtean jo bear izan eban pianurako saio bat; amabi urteko zala Varsovia'ko Lizeuan sartu zan pianu-ikasketak egiteko. Nabari izan zan laster ango ikasleen artean. 1827'an Lizeua laga ta Musika-Ikas-

tetxe Nagusira jo eban, beste gai guztiak itxirik, musikeari buru-belarri ekiteko. Ango irakasleak, gaztearen gaitasun ikaragarria ikusiaz, askatasun osoa emon eutsoen bere kasa jotzeko.

Eta emen daukagu artista gaztea Europa zear kontzertuak emoten eta entzuten. Berlin eta Viena'n, Felix Mendelssohn eta gainerako musikarilaria aundiakaz artu-emonen. 1830'an ibiltaldi aintzatsu bai dugu Europa'ko uriburuetan zear Paris jomuga ta ardatz ebala. Idatziak zitun orduko estudio asko, gaualdiak, marzurkak, valsak eta polakar abestiak barne-doiñuzko pianu-lanak. Baiña alan eta guzti be, ara ta ona juan-etorriak ugaritu arren, ez eban diru-geie-



*Берега історії*

29  
nik eskuratzen; errusua orduantxe  
uzpitatu eben Varsovia eta aserre zi-  
ran frantses liberalak.

### Pio Baroxa

Guere beratar Pio Baroxa'ri ez ja-  
karan atsegin musikalaria, onela  
goizetik gahera agertzen ziran gaz-  
teak batez be. Ipuin eta nobela idaz-  
le onek ez ebazan inoiz be goreski,  
bai osiera apal-azo bere idatzietan.  
Onela idazten eben: "Erakargarri ja-  
tazan musiku guztiak auxe diñoste,  
argi ta garbi zer diran noski, naiz eliz-  
musika naiz ostentzeko dagiela  
Chueca'k bezela. Orrein artean Cho-  
pin, dudamudazko, goibel eta ez-gar-  
bi lez agertzen jat; azaleko zerbait;  
polakar pianistaren lan askotan erdi-  
kusten dan naigabe, goibeltasun na-  
itas bat, sakontasunik bakoa, aurki-  
tzen dot nik".

Goi-argi pizkat erakusten dau, be-  
re eritxiz, gaualdi ta valtsetan, beste  
lan guztietan zalantzan agertzen ja-  
kola. Ondo asten dala be, laster doa  
beerantza ta jotzaille merkearen tre-  
betasunaz ornidu oi ditu eskalak.  
Chopin ez leuke txalotua izan bear,  
itzal artean, artista kaskar artean  
iraun baiño, Brahms, Liszt, Berlioz  
eta olakoen artean; alan be, lenen-  
goen artean aurkitzen da.

Emen bada zerbait oindiño be lar-  
sakonetik ikasi bakoa: arte-lanetan  
ikusle, entzule ta irakurle bakotxak  
dau bere eder-esmena. Eta sarri ez  
dogu, orrez gain, geure eritxiz be itz-  
egiten, inoren aoz baiño. Gaur gores-  
ten dogun artista, musiku, idazle naiz  
dantzari, biar ez jaku atsegin eta pi-

kutara bialdu oi dugu. Au baiña iriz-  
le sustrai aundiko, Baroxa sarri ez  
genduan legez. Egia, eguzkiak laino  
artean bide egin nairik bezela, indar-  
ka dabilkigu artisteia be osperako bi-  
dea edegi eziñik. Onelaxe artista bi  
oneik, Baroxa ta Chopin, laino urra-  
tzen ebiltzala ez ain ondo ikusiak,  
baiña gaur biak artista eder.

### Chopin polakar

Polakarra dozu Chopin, Varso-  
via'n jaioa 1810'ko jorraillaren  
23'an. Polonia'k beti zaindu izan du  
bere Aberria eta askatasuna, beti --  
gaur lez-- bere lur-mugak jagon eta  
zaintzen. Ontaz Chopin inoiz be izan  
nai ez ebana agertzen da; ez, ez eban  
artista arristarazo lez agertu nai izan.  
Maite dau bere erria, baiña andik al-  
de egin eban gaztetan eta etzan gera-  
go ara biurtu. 19 urteko Viena'ra doa  
eta ondoren, Inlaterra'ra ta Alema-  
nia'ra egindako osterak kendu ezke-  
ro, beti Paris'en. Ez, Chopin ezta --  
Unamuno'k esanari jarraituz-- Polo-  
nia'k dauan ederrenaren "barne-  
edestia" besterik, askatasunaren jaun  
eta babesle, bere musikatik berezi-  
eziña, ez gero mazurka ta polakar  
doiñuetatik bakar-bakarrik.

Enda berezi dira polakarrak, bai  
odolez eta izkuntzaz, bai barne-iza-  
tez eta lur-maitasunez. Euren zer-no-  
la artean akatsak eta obariak pisuan  
jarri ezkerro, obariak aurretik joakez-  
zatziz aurretik; eta onein artean nabar-  
mentzen jake gauzak ondo, oso-oso-  
rik egin naia; Chopin osotasunaren  
temati ta gartsua izan zan, langille  
amorratua, egunero Bach'en musika  
erabilli ta landu ebana. Or nun gera-

zen diran aren kontrato esamesak: Paris-Europa'ko musikalaria gaille-  
nak, Paul Dukas'ek, esan oi eutsen  
bere ikasleai geldiro, oso geldiro jo  
egiela Chopin'en edozein pianu-za-  
li, ikusita konturatu eitezan batez be,  
zein zeatz eta arduraz inoñta egozan  
azkenengo notariñoak.

### "Areto" zaiea

Gizartea, jentetza ugaria baiño  
areto, saloi batuak jakozan gogokoa-  
go. Alan be pelikula, nobelak, idaz-  
lanak "jentetza zale" lez agertzen  
dauskue Chopin; gizarte-mezularia  
izan bai litzan. Egia da, Chopin, er-  
di-maillakoa zalarik, beingoan egin  
jakula goi-maillako. Saloiko musi-  
ka nai eban, bai, Balzac, Heine, De-  
lacroix ta olakoak entzule zitularik,  
leñargiko jentea opa eban, mintzo  
gozoko girotan, az ederrezkoen ar-  
tean, lagun-arte goi-jakintsua. Ez  
eban nai soñu zaratatsua, legun, go-  
zo, sakona baiño, eta sarkorra, jen-  
tearen aurreko kontzertuetan.

Bere azken urteetan ain zuzen, sa-  
loi antzeko toki ixil batua nai eban  
kontzertuak emoteko; toki ixil atse-  
gña, maite ebazan arpegiz, loraz eta  
margozko laukiz girotuta. Enda aris-  
tokratitik artua eukan espiritu-eder-  
tasun ori, emendio, lotsa ta guritasun  
deritxona. Orrelaxe agertzen jaku be-  
re idazki ta eskuti -tzetan; orduko  
musikalaria guztiak, Berlioz eta Liszt  
buru dirala, idazle aundi lez agertzen  
dirala, mirarigile lez bear bada, Cho-  
pin ixil-gordean geratzen da. Jarrera  
arriskutsua dudarik bage: leen gora-  
garri jakon Liszt orain ez jako atse-  
pin. Ezta Schumann burgesa be. Goi-

giro orretan bekaitz biurtzen ei da  
errez nor-geiagoka utsa.


### Maitakeri artean

Artista geien-geienak lez Chopin  
be maite-sare artean jausi zan. Zen-  
bat idatzi dan ontaz! Erromantikuen  
Paris izan be arras lizuna zan moral  
arloan. Schumann eta Brahms pizkat  
izan ezik, beste artista erromantiku  
guztiak onela bizi ziran, jomugatzat  
idealismua lainoetan eta maitasuna  
erlejiño lez, eta bide batez gizarteko  
legeak oro aske, agiriko ezkontz-aus-  
teak eta jausbide nabarra ospea za-  
baltzeko. Orrez gaiñ, samurtasuna,  
sentikortasuna ta maritxukeria. Cho-  
pin, ain zuzen be, ixil-gordea zalako,  
labandua, gorteatua izan zan.



*Potocka kondesa, bere maitalea.*

Chopin, argazkietan gizaki ager-  
tzen jakun arren, eta sendo, osasun-  
tsu, gatxepel edo bularrengo (tisis)  
gaixoak jota ebillen aspalditik; eta



*Gaitzak josi seixenen garaiko irudia.*

tedean be ez ain sendo ebillena. Ez-  
ten bi ederrak menpe jausteko, mai-  
tasunean batez be. Bildur zan alan  
be, beti, zer-esanaren bildur.

Maitasun garbiz baita maite eban  
bere sendia. Viena'n aurki-tzen za-  
la izurri latza jasan eban bere abe-  
triak. Polonia zapalduta egoan, eta  
bere sendia bertan. Zarrastada gogo-  
rra aren biotzarentzat; kristau zin-  
tzoak ziran bere etxeokak, baita be-  
ta be, Chopin be, orduan inoizkorik  
sutsuen. Bere kantak diñozkuenez,  
kristau fedetsu dogu garai doakabe-  
onetan. Bere erria ez dau olako zo-  
txarpean ikusi gura, Chopin etzan  
inoiz izan politiku, baiña bere lurral-  
dearen zoriona gura eban.

### Benetako ama-maitasuna

Ezta arrigarri, artisten bizitza gal-  
doriz inguraturik izateak ba-daukaz  
pozaldiak eta naigabe biziak; naiga-  
bean, ostera, ama-biotzaren samur-  
tasuna nai. Chopin gaixorik egoan,  
gaixorik dagoneko gorputzez eta ari-  
maz; amaren babesu bear dau edo-ta  
biotz on baten kerizpea. Eta Potocka  
kondesaren eskuetan jausten jaku,  
ezkondua, eskabidez ta arduraz ama  
bat lez samur eta aberats. Ez eben  
ezer txarrik izan, ta Potocka'k berak  
diñosku gero bien maitasun bero gar-  
bia.

Modan egozan garai atan ur-etxe  
ta urastegiak. Onako baten euki eban  
asiera Chopin eta George Sand'en  
arteko ar-emonu; bata gaixorik eta  
bestea ezkondua ta banatua; arte ba-  
rruko gizona ta emakume atsegin-za-  
le bizia, Musset eta Liszt'ekin Vene-

zia'n zer-esan aundiak euki ebazana.  
Chopin'ek ez eban nai olakorik eta  
iges egin eban Mallorca'ra; lur onek  
ez eutson zer aundirik esaten, eta  
arrotz-etxetik Valldemosa'ko kartu-  
xara joan zan, baiña otzak eta bildur-  
ikarak ezin eroanik, Noant'era biur-  
tzen da, Sand'en etxera, andik laster  
Paris'en kokatuz.

1842'an aurkitzen gara. Chopin  
lanari lotua dabilkigu. Asko kezka-  
tzen ditu George Sand'ek eta bero-  
nen alabak, zorrotz, asko-nai ta ku-  
perak biak. Ondoren datoz Sand sen-  
dikoan istillu latz garratzak. Infernu  
bizia dozu a, an ezin laiteke egon;  
naitaez dator etena. Ez dau ezer idaz-  
ten, antzu lez dago, ta Chopin'i onek  
gaixotasunak berak baiño saminta-  
sun errimeagoa damotsa. Klaseak  
emon bear dauz: neketsu jako, baiña  
emetik erneko dira "Estudioak";  
urretik ez jakozan atsegin iraultzak,  
baiña urrundik Polonia'ko iraultza  
abestuko dau.

### Londres'en

Oso gaixorik aurkitzen zala be,  
ona ta ara joan bear izaten eban kon-  
tzertuak emoten. Paris'en errege,  
erregiña ta andikietatik moltzoka  
doaz berari entzuten. Pleyel aretoan  
dira bere kontzertuak. Azkenengo  
kontzertu-omenaldian arrakasta ika-  
ragarria izan eban, eta gaur be, saloi  
atarako ba'zoaz, an ikusiko dituzu  
larrosak pianuaren eta egitarauaren  
gaiñean.

Londres'tik eukan eskabidea, ta  
1848'ko dagonillaren 10'an ara doa  
Chopin. Guztiz gaixorik doa ta kla-

... aurak estutzen ditu ta jauregi ba-  
zuntza lebertunik. Bu-dau indarra  
begarrena ta adimentsuna zaindu ta  
malkutuko, berriri al dau Dic-  
kenson artikulu bat. Eskozia'ra  
yuan bear dñun naitzez eta an dabil  
guztiaz gaitela. Il-otz bailitza dabil  
mota dñena belarririkaz barik bio-  
tze emuerik. Eskatitzak etxera, es-  
kuzirik. Sand kendira, urdari ta kez-  
kiaz. Bach' emutika entzunaz gosald-  
dare dñan bitartean. Edu onetan  
dau hese errotara gertatuaz.

### Erro pertsonala

1849'an, leengo Chaillot'en  
etxean, pertago Chopin'ek benetan  
maite etan Vendôme plazan. Il-agi-  
fink, berak gertatzen dau Rilke'k ge-  
rago "erri pertsonala" lez abestuko  
dama. Bere burua babestu naiez da-  
tela; zalpundira igon eta ba-doa. Ez  
zelai ta landa zalea, baiña ara doa,  
uriko rugatz azpian eta izarpean po-  
zik amana arunik. Delacroix'en es-  
tudiora doa, adiskide diranak berez  
alkar aurkitzen. "Gizaseme leuna  
bitotzez eta espirituaz" idatziko dau  
enik pero.

Artisteak, geiago eziñik, eriotzaren  
zelan datorren ikusi gura dau. Esiñ-  
rak emon barriro be asko lagund-  
daben Starling familikoai. Pertago  
kondesari abesten entzun, zintza  
izan zizpuru artean autortu arte, ag-  
liñean sartu-unea iragarri, bertan  
bi sartzeko ardura izan eta udazke-  
nean il, 1849'ko urtillaren 17'ko go-  
zaldean. Chopin, erromantiku zar-  
tzuko gauza askoren etsai, bere mu-  
sikan lez agertzen jaku: betiko er-  
romantizismua, eriotzaren aurreko  
burgesen jarrera gainditutea dala  
momentu ortan Jainkoarekiko alkar-  
izketa bera be bai.

Argazkirik asko izan dauz Cho-  
pin'ek, bere bizitzan eta il ondoren,  
baiña egi-egiazkoa bere musikan  
daukagu bakar-bakarrik. Ortxe dala  
Unamuno'ri jarraituz, Chopin'ek  
izan nai ebana, eta musikan bakarra  
izan zana. Musikan bakar-bakarrik  
beronek batzen bait ditu, ederto be  
ederto, gaitasun biok: gain-gaiñeko  
osotasuna, ta ertz guztietatik dala  
barne-leia bizia. Gaur-egunean be  
espiritu naigabetu batzuk bear bada  
ulertuko dabe aren arnasa barrukoia-  
ren gozotasuna.